

La Città de i Bambini nazioarteko proiektuan inspiratzen da Haurren Hirien Sarea

EUSKADIK UDALERRIEN SAREA JARRIKO DU MARTXAN IKAS-INGURUNE KOMUNITARIOAK SORTZEKO

- Haurren Hirien Sarea proiektua eta Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategia agente publiko eta pribatuen partzuergo batek bultzatzen ditu: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Leioako Udala, EHUKo Irakasle Unibertsitate Eskola, Solasgune eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia daude partzuergoan.

- Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategiak euskal udalerrien sare bat, Haurren Hirien Sarea, jarriko du martxan, gizarte-gune komunak ikasgune berritzaile, inklusibo eta malgu bihurtzeko, pertsonen burujabetasuna sustatu eta hauek beren hazkunde-ahalmen guztia garatu ahal izateko.

- Italiar pedagogo ospetsua den Francesco Tonucci-ren *la Città de i Bambini* nazioarteko proiektuak haurren parte-hartze aktiboa proposatzen du hirien kudeaketan, eta Haurren Hirien Sarea oinarritzeko parametroak jartzen ditu.

Leioa, 2014ko urtarrilaren 29a. Gaur goizean aurkeztu dira Leioako Ondiz dorrean **Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategia** eta **Haurren Hirien Sarea**; euskal udalerrien sare bat jarriko dute martxan, beraietan bizi den jendearen hazkunde eta garapenarekin konprometituriko udalerriena. **Hezkuntza eta gizarte-berrikuntzako** ekinbide bat da, gizarte-gune komunak **ikasgune inklusibo** eta malgu bihurtu nahi dituen, **pertsonen** burujabetasun edo autonomia sustatu eta hauek beren **hazkunde-ahalmen** guztia garatu ahal izateko. Proiektua agente publiko eta pribatuen partzuergo batek bultzatzen du, eta hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Leioako Udalak, EHUKo Irakasle Unibertsitate Eskolak, Solasgunek eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak osatzen dute. Aurkezteko prentsaurrekoan izan dira **Francesco Tonucci**, italiar pedagogo eta *La Città de i Bambini* nazioarteko proiektuaren koordinatzailea; Gotzon Bernaola, **Innobasque**ko programa-zuzendaria;

eta Mari Carmen Urbieta, **Leioako Udaleko** alkatea, eta beronen inguruan **Umeen Kontseilua** –herri horretako Alkatetzaren organo aholku-emailea– osatzen duten 10 eta 13 urte arteko 19 haurrak.

Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategia eta Haurren Hirien Sarearen abiapuntua **Herrigune** Leioa esperientzia da: 10 urte baino gehiago daramatza udalerriko zenbait eragilerekin lankidetzan hazkunde komunitarioko plana sortu eta garatzen bere herritarrentzat. Gainera, Alkatetzak organo aholku-emaile bat du, Umeen Kontseilua, eta konprometituta dago honen gomendioak entzutera. Gomendio horiek organoa osatzen duten **haurren ikuspegia** adierazten dute. Horren haritik, mundu osoan Francesco Tonuccik sustatzen duen *La Città de i Bambini*-k hiriak gobernatzeko beste eredu bat proposatzen du, haurrak harturik herritar guztien beharrian edo premien parametro eta berme gisa. Kontua ez da haurrentzako baliabideak eta zerbitzuak gehitzea, baizik eta guztiontzako hiri hobea eraikitzea. Haurren Hiriak hirietan hurrei burujabetasuna itzultzeko ekintzak gauzatzen ditu, eta horien parte-hartzea sustatzen du tokiko gobernuetan, ahotsa emanez beraiengan pentsatuz egitura daitezen hiriak.

Esperientzia honetan oinarritzen da Haurren Hirien Sarea, Ikas-Ingurune Komunitarioen Laborategiak bultzatzen duen euskal udalerrien sarea, eta antzeko esperientziak dituztenak edota ekinbide honekin bat egin nahi dutenak bilatzen ditu beste herri batzuetan, espazio komuna, erantzunkidetasuna eta gizarte-konpromisoa berreskuratuko duten garapen-eredu komunitarioak eraikitzeko.

Proiektu honetan inplikaturiko erakundeek bihar, osteguna, urtarrilaren 30a, Bilbon aurkeztuko dute EHUren Bizkaia Aretoan (paraninfoan), eta bertan Francesco Tonuccik hitzaldia emango du Haurren Hiriei buruz.

ARGIBIDE GEHIAGO:

Alberto Bocos, Innobasque.

T. 944 209 488/656 320 661 abocos@innobasque.com